

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 317/2018 Erabakia, ekainaren 12koa. Onestea Arabako lurralde historikoko egoiliarrei AP-1 eta AP-68 autobideetan diruz laguntzekoak diren tartetean haiek ordaindu duten bidesariengatik dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta dirulaguntza horiei dagokien deialdia

Diputatuen Kontseiluak otsailaren 5eko 9/2002 Erabakiaren bidez AP-68 autobideko tarte dirulaguntzadunean Arabako Lurralde Historikoan bizi diren erabiltzaileek ordaintzen dituzten bidesariengatik jasoko dituzten dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu zituen. Gero, oinarri horiek maiatzaren 22ko 31/2012 Erabakiaren bidez aldatu ziren.

Diputatuen Kontseiluak otsailaren 5eko 292/2009 Erabakiaren bidez AP-1 autobideko tarte dirulaguntzadunean Arabako Lurralde Historikoan bizi diren erabiltzaileek ordaintzen dituzten bidesariengatik jasoko dituzten dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu zituen. Gero, oinarri horiek ekaineko 16ko 387/2009 Erabakiaren eta martxoaren 27ko 141/2012 Erabakiaren bidez aldatu ziren.

Apirilaren 27ko 180/2018 Foru Dekretuaren bidez AP-68 autobideko tarte dirulaguntzadunean Arabako Lurralde Historikoan bizi diren erabiltzaileek ordaintzen dituzten bidesariengatik 2018ko lehen seihilekoan jasoko dituzten dirulaguntzen deialdi publikoa onartu zen.

Apirilaren 77ko 236/2018 Foru Aginduaren bidez AP-68 autobideko tarte dirulaguntzadunean Arabako Lurralde Historikoan bizi diren erabiltzaileek ordaintzen dituzten bidesariengatik 2018ko lehen seihilekoan jasoko dituzten dirulaguntzei aurre egiteko behar den diru kopuruari eman zaio Arabako Bideak-Vías de Álava, SA (Arabat) sozietate publikoari.

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak bidesariengatik ematen den dirulaguntza sendotu eta hobetu nahi du; horretarako, AP-68 autobideen erabiltzaileentzako laguntzak gehituko ditu eta tarifa laua ezarriko du AP-1 autobidean.

Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, ALHko dirulaguntzenak, ezartzen duenarekin bat etorritik, Arabako Bideak-Vías de Álava, SA (Arabat) sozietate publikoari agindu zaio AP-1 eta AP-68 autobideetako tarte dirulaguntzadunetan Arabako Lurralde Historikoan bizi diren erabiltzaileek ordaintzen dituzten bidesariengatik jasoko dituzten dirulaguntzak kudeatzeko eta bideratzeko ardura, entitate laguntzaile gisa.

Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak proposatzen du AP-68 autobideko Arabako tarte erabiltzen dutenentzako dirulaguntza arautzen duten oinarri berriak onartzea, dirulaguntzaren ehuneko 50etik ehuneko 60ra igotzeko eta, aldi berean, dirulaguntza jasotzeko eskatzen den hileko gutxieneko osteren kopurua 25etik 15era murrizteko.

Horrez gainera, proposatzen du AP-1 autobideko tarte jakin batzuk erabiltzen dituztenentzako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri berriak onartzea, sistema berria ezartzeko: tarifa laua edo gehieneko kostua AP-1 autobideko tarte batzuetan; dirulaguntzadun tarte handitzea, hau da, Arabako lurraldeko tarte izan beharrean Etxabarri-Ibiña – Maltzaga izatea. Sistema berria onuragarria izango da autobidea maiz erabiltzen dutenentzat.

Horregatik guztiagatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehena. AP-68 eta AP-1 autobideetako tarte dirulaguntzadunetan Arabako Lurralde Historikoan bizi diren erabiltzaileek ordaintzen dituzten bidesariengatik jasoko dituzten dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea. Oinarrien testua erabaki honen eranskinean dago.

Bigarrena. Oinarri arautzaileak ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. AP-68 eta AP-1 autobideetako tarte dirulaguntzadunetan Arabako Lurralde Historikoan bizi diren erabiltzaileek ordaintzen dituzten bidesariengatik jasoko dituzten dirulaguntzen deialdia onartzea. Dirulaguntzak 2018ko bigarren seihilekoan hasiko dira ordaintzen.

Laugarrena. Arabako Foru Aldundiaren 2018ko ekitaldiko aurrekontuan 210.456,00 euroko zenbatekoa zainpetzea 50.1.07 54.01 480.00.01 "AP-68ko bidesari soziala" partidaren (xedapen erreferentzia: 18.1.18.105-2831/000) Arabako Bideak-Vías de Álava, SA (Arabat) sozietatearen alde, onartutako agindua betetzeko, hau da, AP-68 autobideko tarte dirulaguntzadunetan Arabako Lurralde Historikoan bizi diren erabiltzaileei ordaintzen dituzten bidesariengatik 2018ko lehen seihilekoan dirulaguntzak emateko. Kopuru hori Arabako Foru Aldundiak aurrekontuan baliagarri daukan diruaren arabera gehitu ahal izango da, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuak txostena egin ondoren eta Bide Azpiegituretako eta Mugikortasuneko zuzendariak ontzat emanaz gero.

Bosgarrena. Arabako Foru Aldundiaren 2018ko ekitaldiko aurrekontuan 272.476,00 euroko zenbatekoa zainpetzea 1.50107.5401.4800002 "AP-1eko tarifa laua" partidaren (xedapen erreferentzia: 18.1.18.105-2830/000) Arabako Bideak-Vías de Álava, SA (Arabat) sozietatearen alde, onartutako agindua betetzeko, hau da, AP-1 autobideko tarte dirulaguntzadunetan Arabako Lurralde Historikoan bizi diren erabiltzaileei ordaintzen dituzten bidesariengatik 2018ko lehen seihilekoan dirulaguntzak emateko. Kopuru hori Arabako Foru Aldundiak aurrekontuan baliagarri daukan diruaren arabera gehitu ahal izango da, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuak txostena egin ondoren eta Bide Azpiegituretako eta Mugikortasuneko zuzendariak ontzat emanaz gero.

Xedapen indargabetzailea. Erabaki hau indarrean jarritakoan indargabetuta geratuko dira maiatzaren 22ko 31/2012 Erabakia eta martxoaren 27ko 141/2012 Erabakia. Erabaki horietako lehenak AP-68 autobideko bidesarien dirulaguntzen oinarriak arautzen zituen eta besteak AP-1 autobideko bidesarien dirulaguntzenak.

Ebazpen hau behin betikoa da bide administratiboan eta beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, argitaratzen den egunaren biharamunetik bi hilabete pasatu baino lehen, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, jurisdikzio hori arautzen duenak, 46. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik. Gainera, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari argitaratzen den egunaren biharamunetik hilabete pasatu baino lehen, eta egokitatzat jotzen den beste edozein errekurtsu ere bai.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 13a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua

JESÚS MARÍA LÓPEZ UBIERNA

Oinarriak, AP-1 eta AP-68 autobideetako tarte batzuetan (dirulaguntzarako onartzen diren tarteetan) Arabako Lurralde Historikoan bizi diren erabiltzaileek ordaintzen dituzten bidesariengatik Arabako Bideak-Vías de Álava, SAK (Arabat) emango dituen dirulaguntzak arautzen dituztenak

1. Dirulaguntzen xedea

Oinarri hauen xedea da arautzea nola emango zaizkien dirulaguntzak AP-1 eta AP-68 autobideetako tarte jakin batzuk erabiltzen dituzten arabarrei ordaintzen dituzten bidesarien kostuei aurre egiteko.

2. AP-1 autobidea: dirulaguntzen onuradunak

Oinarrietan arautzen diren dirulaguntzen onuradunak izan daitezke ohiko etxebizitza Arabako Lurralde Historikoan dutela AP-1 autobideko Etxabarri-Ibiña – Maltzaga tarte erabiltzen duten pertsona fisikoak, baldin eta ibilgailu arina erabiltzen badute (autobiderako ezarritako tarifa taularen arabera ibilgailu arina) eta dirulaguntzari dagokion autobiderako balio duen teleordainketako gailu onartua badaukate. Gailua bi ibilgailutarako prestatuta egon daiteke gehienez. Gailuak finantza entitateen bidez eta horrelako ordainketa elementuak saltzen dituzten entitateen bidez eskura daitezke. Ezin dira izan onuradunak garraio publikorako baimenen bat dutenak, ez eta jarduera ekonomiko bati lotutako ibilgailua erabiltzen dutenak ere.

3. AP-1 autobidea: dirulaguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzak AP-1 autobideko Etxabarri-Ibiña eta Maltzaga arteko ordainleketan Arabako Lurralde Historikotik irteten edo bertan sartzen diren gidariek jasoko dituzte; mugak eta zenbatekoak:

Etxabarri-Ibiña – Eskoriatza tarte: Dirulaguntzaren zenbatekoa erabiltzaileak hilean 15 eurotik (BEZ barne) gora ordaintzen duen kostuaren ehuneko 100 izango da; muga: 50 oster a hilean. Beraz, gastuen lehen 15 euroak erabiltzaileen kontura izango dira. Hileko gastua zenbateko horretara heltzen ez bada, ezin jaso izango da dirulaguntzarik.

Eskoriatza – Maltzaga tarte: Dirulaguntzaren zenbatekoa erabiltzaileak hilean 60 eurotik (BEZ barne) gora ordaintzen duen kostuaren ehuneko 100 izango da; muga: 50 oster a hilean. Beraz, gastuen lehen 60 euroak erabiltzaileen kontura izango dira. Hileko gastua zenbateko horretara heltzen ez bada, ezin jaso izango da dirulaguntzarik.

Osterak gertatzen diren ordenan bilduko dira eta mugak egutegiko hileka aplikatuko dira.

Ostera Araban hasten edo amaitzen bada eta aurrean aipatutako tarteetako bat hartzen badu (osorik edo zati bat), tarte bakoitzean egindako bidearen proportzioan kalkulatu da dirulaguntzaren zenbatekoa.

Beraz, ostera Eskoriatzakoa baino lehen dagoen ordainleku batetik haren ondoren dagoen beste baterainokoa bada, bi ostera balira bezala egingo da kalkulua: bata Eskoriatzaraino eta bestea handik helmugaraino. Halako osteretan, lehen mugaren barruan zenbatuko da Arabako ordainlekutik Eskoriatzako ordainlekurainoko tartearen bidesaria eta bigarren mugaren barruan osterako gaineko bidesaria.

Arabako ordainlekuen eta AP-8 autobideko ordainlekuen arteko osteretan, bigarren muga AP-1 eta AP-8 autobideek bat egiten tokia erreferentziazat (irteera edo helmuga) hartuta aplikatuko da.

Deskontuak hilero aplikatuko zaizkio bidesaria ordaintzeko gailu telematikoa daukan pertsona fisiko bakoitzari. Dirulaguntzadun bidesariari atxikitzean erabiltzaileak ematen duen gailu telematikoaren arabera kalkulatu da deskontuak. Gailua aldatu behar bada (galdu, matxuratu edo iraungi delako), erabiltzaileak horren berri eman dezake PAN (gailuaren zenbakizko identifikatzailea) berria eta behar adina justifikazio argibide aurkeztuta. Horretara, gorabeheraren jakinarazpenaren egunetik aurrera gailu berriarekin egindako bidaiak zenbatuko zaizkio.

Dirulaguntza eskaera aurkezten den egunetik aurrera egiten diren osterei aplikatuko zaizkie dirulaguntzak, eta dirulaguntzadun osterak egin ondoko hiruhileko naturala amaitutakoan ordainduko dira.

4. AP-68 autobidea: dirulaguntzen onuradunak

Oinarrietan arautzen diren dirulaguntzen onuradunak izan daitezke ohiko etxebizitza Arabako Lurralde Historikoan dutela AP-68 autobidean dirulaguntzarako onartzen den tartea erabiltzen duten pertsona fisikoak, baldin eta ibilgailu arina erabiltzen badute (autobiderako ezarritako tarifa taularen araberako ibilgailu arina), dirulaguntzari dagokion autobiderako balio duen teleordainketako gailu onartua badaukate eta osteran honako ordainleku hauetatik sartzen eta irteten badira autobidetik: Laudio, Laudioko nagusia, Ziorraga, Altube, Subilla edo Zambrana (Laudioko ordainleku nagusitik sartu edo irtenez gero, ez da dirulaguntza emango Bilbo eta Laudio arteko bidesarirako). Gailuak finantza entitate laguntzaileen bidez eta horrelako ordainketa elementuak saltzen dituzten entitateen bidez eskura daitezke. Ezin dira izan onuradunak garraio publikorako baimenen bat dutenak, ez eta jarduera ekonomiko bati lotutako ibilgailua erabiltzen dutenak ere.

5. AP-68 autobidea: dirulaguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko jarraian azalduko den deskontua aplikatuko zaio AP-68 autobideko dirulaguntzadun tarteko bidesariaren guztirako zenbatekoari:

Ehuneko 60ko deskontua aplikatuko zaio egindako osteren guztirako zenbatekoari, baldin eta hilean gutxienez 15 bidaiak egiten badira.

Deskontuak egiteko, honela zenbatuko dira bidaiak: AP-68 autobideko dirulaguntzadun tartean aurreko artikuluan azaldutako ordainketa gailuarekin egiten diren osterak guztiak zenbatuko dira. Bidesaria kobratzen den unea izango da osterak bakoitzaren amaiera. Bidaiak hurrenkera kronologikoaren arabera zenbatuko dira.

Deskontuak hilerok aplikatuko zaizkio bidesaria ordaintzeko gailu telematikoa daukan pertsona fisiko bakoitzari. Bidesariari atxikitzean erabiltzaileak ematen duen gailu telematikoa arabera kalkulatuko dira deskontuak. Gailua aldatu behar bada (galdu, matxuratu edo iraungi delako), erabiltzaileak horren berri eman dezake PAN (gailuaren zenbakizko identifikatzailea) berria eta behar adina justifikazio argibide aurkeztuta. Horretara, gorabeheraren jakinarazpenaren egunetik aurrera gailu berriarekin egindako bidaiak zenbatuko zaizkio.

Dirulaguntza eskaera aurkezten den egunetik aurrera egiten diren osterei aplikatuko zaizkie dirulaguntzak, eta dirulaguntzadun osterak egin ondoko hiruhileko naturala amaitutakoan ordainduko dira.

6. Eskaerak aurkeztea

Eskaerak aurkezteko epealdia oinarriak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da.

Eskaerak Arabako Bideak-Vías de Álava, SA (Arabak) sozietate publikoaren bulegoetan aurkeztu behar dira (Vicente Goikoetxea 1, 1. solairua, 4. bulegoa).

Eskaerak inprimaki normalizatuan egin behar dira; eskaera bakoitzarekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- NANaren fotokopia.
- Eskatzailea Arabako udalerriri batean erroldatuta dagoela ziurtatzen duen agiria.
- Eskatzaileak Arabako Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.

– Honako hauen egiaztagiria, finantza entitate batek emana: bidesari telematikoak ordaintzeko erabiliko den eskatzailearen kontua; ordainketako gailu telematikoaren erabilgarritasuna; gailuaren zenbaki osoa.

– Gailua erabil daitekeen ibilgailuak (bi gehienez) identifikatzen dituen agiria (matrikulak).

– Erantzukizunpeko adierazpena, gailua erabil daitekeen ibilgailuak jarduera ekonomiko bati lotuta ez dagoela dioena.

Bajarik eman ezean, hurrengo ekitaldietan onuradunek ez dute edukiko zertan aurkeztu agiri horiek.

Halaber, aurreko deialdietan onuradun izan direnek ere ez dituzte agiri horiek berriro aurkeztu behar, dirulaguntza emateko kontuan hartzen diren inguruabar erabakigarrietako bat aldatu ezean. Hala ere, artikulua honetan ezartzen diren betekizun guztiak betetzeko behar diren agiriak aurkeztu behar dituzte. Dokumentazio berria 2018ko irailaren 1a baino lehen aurkeztu behar da. Horretarako, Arabako Bideak-Vías de Álava, SA (Arabat) sozietateak idazki bat bidaliko die zer agiri behar den azaltzeko. Epealdi horretan izapide hau egiten ez duten onuradunei baja emango zaie.

Gaur egun pertsona batek AP-1 eta AP-68 autobideetako bidesarien dirulaguntzak jasotzen baditu, bi programa horietako baten azken eskaeran emandako datuak hartuko dira erreferentziatzat. Honako hauek, hain zuzen: datu pertsonalak, helbidea, ordainbidea eta ordainketa egiteko kontua. Bi programetarako onuradun errolda bakarra dagoenez gero, bietarako ordainbide bakarra ematea onartzen da.

Urriaren 5eko 58/2004 Foru Dekretuak xedatzen duena aplikatuz, ofizioz egiaztatuko da onuradunek beren zerga betebeharrak egunean dituzten ala ez. Gauza bera egingo da ohiko egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten egiaztatzeko, Pertsona fisikoen errentaren gaineko Zergaren 33/2013 Foru Arauak xedatzen duenari jarraituz.

Eskaera batek adierazitako baldintzak betetzen ez baditu, Arabako Bideak-Vías de Álava, SA (Arabat) sozietate publikoak interesdunari eskatuko dio hamar egun pasatu baino lehen zuzendu dezala akatsa edo aurkez ditzala behar diren agiriak. Eskatutakoa egin ezean, eskaera artxibatuko da eta interesdunak eskaeran atzera egin duela pentsatuko da.

7. Dirulaguntzak emateko araubidea

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak lehia askean emango dira. Oinarri arautzaile hauetako baldintzak eta gainontzeko arautegia betetzen dituzten eskatzaile guztiak onuradunak izango dira.

Deialdia 2018ko uztailaren 1etik aurrera egiten diren osteretarako jarriko da indarrean eta hala egongo da indarreko aurrekontuko partidetan esleitutako dirua esleituta dagoen bitartean.

8. Baliabide ekonomikoak

Oinarri arautzaile hauek indarrean egongo dira Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontuetan helburu horretarako kreditu egoki eta nahikoa dagoen bitartean.

9. Dirulaguntzen kudeaketa eta ordainketa

AP-1 eta AP 68 autobideen erabiltzaile arabarrei oinarri hauetan eta hitzarmenean ezartzen denaren arabera emango zaizkien dirulaguntzak Arabako Bideak-Vías de Álava, SA (Arabat) sozietate publikoak kudeatuko ditu.

Hilero, aurkeztutako eskaerak deialdian zehaztutako irizpideen arabera egiaztatu ondoren, Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak ebazpena emango du zehazteko zer eskatzailei emango zaien dirulaguntza eta nortzuei ukatu zaien (zergatik ukatu zaien zehaztuta). Hilabete pasatu baino lehen Arabako Bideak-Vías de Álava, SA sozietate publikoak dirulaguntza eman edo ukatu zaien jakinaraziko die eskatzaileei; horretarako urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 40. artikuluan arautzen dituen bideak erabiliko ditu.

Dirulaguntzadun osterak egiten diren egutegiko hiruhilekoa amaitu ondoko hilean Arabako Bideak-Vías de Álava, SA (Arabat) sozietateak onuradunei dirulaguntzak ordaintzeko aginduko du, Arabako Foru Aldundiak onartutako oinarriekin eta deialdiarekin bat etorriz.

10. Oinarriak onartzea

Dirulaguntzen onuradunek Arabako Bideak-Vías de Álava, SA (Arabat) sozietate publikoaren eta Arabako Foru Aldundiaren egiaztapenak onartu beharko dituzte, eta Kontuen Epaitegiaren eta beste organo eskudun batzuen legerian ezartzen direnak ere bai.

Eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak deialdi hau arautzen duten oinarri guztiak onartzea, batetik, eta gainera, bestetik, baimena ematea Arabako Foru Aldundiari eta Arabako Bideak-Vías de Álava, SA (Arabat) sozietate publikoari dirulaguntzen kudeaketarako behar diren datu pertsonalak erabiltzeko.

Onuradunek dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretan gertatzen diren aldaketa guztien berri eman beharko diote Arabako Bideak-Vías de Álava, SA (Arabat) sozietate publikoari, eta eskatzen zaizkien agiri osagarri guztiak aurkeztu beharko dituzte.

11. Garapena

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatu titularrak deialdi hau garatzeko beharrezkotzat jotzen diren ebazpen guztiak emango ditu. Gainera, datuak egiazkoak diren eta oinarri hauetan arautzen dena betetzen den argitzeko ekintzak bideratu ahal izango ditu.

12. Oinarriak betetzea eta zehapenen araubidea

Dirulaguntza hauen onuradunek urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzenak, ezartzen dituen eskakizunak bete beharko dituzte, bai eta oinarri hauetako betekizunak eta baldintzak ere.

Dirulaguntza hauei dagokienez arau hauste larriak dira, 11/2016 Foru Arauko 58 - 60 bitarteko artikuluetan arautzen direnez gainera:

- Dirulaguntzadun osteretan eskaeran zehazten ez den ibilgailua erabiltzea.
- Dirulaguntzadun osteretan jarduera ekonomiko bati lotutako ibilgailua erabiltzea.

Batera zein bestera, arau hausleari zehapen hau ezarriko zaio: arau haustea hautematen den hileko dirulaguntza ez kobratzea. Arau hausle batek beste arau hauste bat egiten badu (aurrean azaldutako bietako edozein), ez du jasoko bigarren arau haustea egin duen hiruhilekoko dirulaguntza. Beste arau hauste bat hautematen bazaio, urtebetean ezin izango du kobratu dirulaguntza.

Arabako Bideak-Vías de Álava, SA (Arabat) sozietate publikoak Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari jakinaraziko dizkio ustezko arau hausteak, izapideak egin ditzan 11/2017 Foru Arauak IV. tituluaren ezartzen duenaren arabera.

13. Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin

AP-68 autobideko dirulaguntzak eta AP-1 autobidekoak bateragarriak dira beren artean.

Hala ere, bateraezinak dira xede bererako beste dirulaguntza eta laguntza batzuekin.

14. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioaren inguruko auziak Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak ebatziko ditu.

15. Aurkaratzea

Deialdi honen eta haren ondoriozko egintza administratibo guztien aurka egin daiteke; zer kasutan eta nola egin daitekeen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, zehazten du.

16. Azken klausula

Oinarri hauetan xedatzen ez den guztirako honako hauek aplikatuko dira: 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzena; 18/1997 Foru Dekretua, dirulaguntzen eta administrazio kontratazioaren inguruko zerga betebeharren frogabideen konkordantzia arautzen duena (urriaren 5eko 58/2004 Foru Dekretuak aldatzen du); azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia onartzen duena; abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontu Araudi Ekonomikoari buruzkoa, indarreko Aurrekontu Antolaketakoa; urriaren 1eko 39/1992 Legea, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzkoa; aplika daitezkeen diren gainerako arauak.